

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

583

185/2025 EBAZPENA, urtarrilaren 28koa, Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Izaro Kortazar Zubizarreta andrea izendatzen baita Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Arabako Erakunde Sanitario Integratuko Neurologiako Zerbitzu Sanitarioko Buru, aldi baterako, lau urte luzagarri.

Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearen ekainaren 26ko 1263/2024 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Arabako Erakunde Sanitario Integratuko Neurologiako Zerbitzu Sanitarioko Buru lanpostu bat betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2024ko uztailaren 5eko EHAA, 132. zk. eta 2024ko uztailaren 11ko EAO, 167. zk.).

Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari medikoaren abuztuaren 8ko 1612/2024 Ebazpenaren bidez, ebazpen honen huts-zuzenketa egin zen: ekainaren 26ko 1263/2024 Ebazpena, zeinaren bidez deialdia egin baitzen Neurologiako Zerbitzu Sanitarioko Buru lanpostua lehiaketa bidez betetzeko. Huts-zuzenketaz gain, eskabideak aurkezteko epea zabaldu da (2024ko abuztuaren 19ko EHAA, 160. zk. eta 2024ko irailaren 3ko EAO, 213. zk.).

Epaimahaiak baloratu egin ditu aurkeztutako eskabideak, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, Izaro Kortazar Zubizarreta andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da pertsona hori izendatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Arabako Erakunde Sanitario Integratuko Neurologiako Zerbitzu Sanitarioko Buru.

Beraz, bat etorri Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikularen hirugarren arau komunarekin, Osakidetzako lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Izaro Kortazar Zubizarreta andrea izendatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Arabako Erakunde Sanitario Integratuko Neurologiako Zerbitzu Sanitarioko Buru, aldi baterako.

Bigarrena.– Izendapen honek lau urteko indarraldia izango du, luzatzeko aukerarekin, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikularen hirugarren arau komunean ezarritakoaren arabera, eta egun honetatik aurrera izango ditu ondorioak: 2025eko otsailaren 1a.

Hirugarrena.– Izendatutako pertsonak aipatutako epea amaitzean utziko du lanpostua, baldin eta jazotzen ez bada luzapena egin ahal izateko baldintzaren bat eta, betiere, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen aipatutako 28. artikuluan ezarritakoarekin bat etorri.

Laugarrena.– Izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere kendu ahal izango dute kargutik izendatua, aldeztu aurretik kontrako espediente baldin badago eta ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikularen 6. apartatua aurreikusitako lekualdatze-kausak direla medio.

2025eko otsailaren 6a, osteguna

Bosgarrena.– Interesdunari eta Arabako Erakunde Sanitario Integratuari ebazpen honen berri ematea.

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osa-kidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urtarrilaren 28a.

Arabako ESiko zuzendari-gerentea,
ENRIQUE MANUEL BÁREZ HERNÁNDEZ.